

ABESTUKO DITUGUN KANTAK

OLENTZERO

Olentzero joan zaigu
mendira lanera,
intentziuarekin ikatz
egitera.

Aditu duenian negua
heldu dala, lasterka
etorri da berri

ematera.

Horra, horra, gure

Olentzero,
pipa hortzetan duela
eserita dago.

Kapoiak ere baditu
arrautzatxuekin, bihar
meriendatzeko botila
arduakin.

Olentzero buruhaundia,
entendimenduz jantzia.

Bart arratsean
edan omen du

hamar arruko zahagia.

Ai urde tripa haundia!

Tralaralala, tralaralala

Ai urde tripa hundia!

Tralaralala lala lala

HATOR HATOR

Hator, hator, lagun, etxera
gaztaina ximelak jatera,
gabon gava ospatutzeko
aitaren eta amaren ondoan.
Ikusiko dun aita barrezka
amaren poz ta atseginez.

Eragion, lagun, aurreko
danbolin horri.

Gaztainak erre artian,
gaztainak erre artian,
txipli-txapla, pun!

Gabon gava pozik igaro
daigun.

ALAKEN

Alaken, alaken,
ala pikula tun paire,
errespunde la pikula tunpa
Jesus Maria Jainkoa zen.

(bis)

Adizkideok!

Ikusi duzue

zelai horietan artzaia,

artzai txiki,

artzai handi,

artzai mutur leuna.

KAX KAX ATEAN

Kax, kax, kax atean: Nor
dabil etxean?

Ikusi makusi, nor
naizen ikasi:
praka zabalak,
atorra urdina.

Ai ene! Ez dakit ezer ez, ez,
ez!

Ai ene! Kontatu mesedez.

(Bis)

Kax, kax, kax atean: Nor
dabil etxean?

Ikusi makusi, nor
naizen ikasi:
mutur zikina,
txapela beltza.

Ai ene! ez dakit ezer ez, ez,
ez! Ai

ene! Kontatu mesedez. (Bis)

Kax, kax, kax atean: Nor,
dabil etxean?

Ikusi makusi, nor
naizen ikasi: pipa
ahoa, ardoa
bertan.

Bai, bai, bai, lehen orain eta
gero,
zu zara gure Olentzero. (Bis)

